

ANTOLAKUNTZA ETA JARDUERA ARAUTEGIA

IKASTEGIKO ANTOLAKUNTZA ARAUTEGIA

Antolakuntza eta Jarduera Arautegia (A.J.A.) lan jarraitua da, etengabeko zuzenketa eta eransketaren menpean dagoena. A.J.A, behin-behingo onartzeko baliatu prozesu berari jarraikiz aldaraz daitekeen dokumentu bat da.

Irakasleen Klaustroak emango du Antolakuntza eta Jarduera Arautegiari buruzko irizpena eta Eskola Kontseiluak berretsiko; ondoren ikastegiak Ondarroako Udalari aurkeztuko dio, hark onar dezan.

TITULARTASUNA

Unanue tar Pedro Mari Musika Eskolaren titulartasuna, Ondarroako Udalaren esku dago. Baguz Musika elkarte, Musika eskolaren zein haren zerbitzuan kontratatutako langileriaren kudeaketaz arduratzen da.

I. KAPITULUA: XEDAPEN OROKORRAK

1. ARTIKULUA: IKASTEGIAREN GOBERNU ORGANOAK

1. Unanue tar Pedro Mari Musika Eskolak, Ondarroako Udaleko berezko organoei Legeek eman dizkieten goragoko eskuduntzen kaltetan izan gabe, honako zuzendaritza organoak izango ditu:
 - Kide anitzeko organoak:
 - a. Eskola kontseilua
 - b. Klaustroa
 - c. Zuzendaritza Batzordea
 - Kide bakarreko organoak:
 - d. Zuzendaria
 - e. Ikasketa burua

f. Idazkaria

2. BAGUZ MUSIKA ELKARTEA: Esleipenaren ondorioz Eskolaren kudeaketaz arduratuko den elkartean.

2. ARTIKULUA: ESKOLA KONTSEILUA

1. Eskola Kontseilua Musika Eskolako kideek ikastegiko gobernuan parte hartzeko organoa da, eskola bizitzari eragiten dioten erabaki nagusiak esleituak ditu eta haren funtzionamenduaren azken erantzulea da.

2. Honako kideok osatuko dute ikastegiko Eskola Kontseilua:

- a. Ikastegiko zuzendariak, bera izango delarik lehendakaria.
- b. Ikasketa buruak
- c. 2 irakaslek
- d. Ikasleen 2 gurasok.
- e. Adin nagusiko 2 ikaslek.
- f. Udal Korporazioko ordezkari batek.

3. ARTIKULUA: ESKOLA KONTSEILUAREN ESKUDUNTZAK

1. Ikastegiko hezkuntza proiektua taxutzeko jarraibideak ezartzea eta Udalak onar ditzan proposatzea, irakasle klasustroak irakasle planari eta antolakuntzari dagokionez esleituak dituen eskuduntzen kaltetan izan gabe.

2. Antolakuntza eta Jarduera Arautegia ezagutu eta taxutzea, hura Ondarroako Udalari aurkeztea behin betiko onartua izan dadin, kudeaketa proiektuari buruzko irizpena ematea, betearaztea eta ebaluaketa egitea.

3. Eskolaz kanpoko jardueren eta jarduera osagarrien programa eta urteko kudeaketa programa onartuak izan daitezen proposatzea, jarraipena eta aldizkako ebaluaketa eginez.

4. Ikastegiko urteko memoria onartua izan dadin proposatzea.

5. Ikasleak onartzeari buruz erabakitzea, beti ere Udalak horretarako ezarritakoa aintzat hartuaz.

6. Ikasleen diziplina gaietan zehapenak ezartzea eta gatazkak konpontzea, beren eskubide eta betebeharrak arautzen dituzten arauak kontutan izanik.

7. Udalari gainerako ikastegiekin lankidetzaren harremanak ezar daitezen proposatzea, kultura eta hezkuntzazko helburuak betetzeko.

8. Eskola instalazio zein ekipoen berrikuntza eta kontserbazioa sustatzea.

9. Ikastegiaren administrazio eta irakasle alorreko orotariko jarduerak gainbegiratzea.

4. ARTIKULUA: ESKOLA KONTSEILUAREN BATZARRAK

1. Eskola Kontseilua 2 aldiz batuko da ikasturtean gutxinenez, lehendakariak konbokaturik edo partaideen erdiak hala eskatuko balu. Ikasturte hasieran, eztabaida mahairatzeko eta urteko plana onartzeko egingo da bilkura, eta beste bat urte amaieran, memoria aztertzeke eta onartzeko.
2. Idazkariak hartutako akordioen akta jasoko du. Aktak idazkariak sinatuko ditu zuzendariaren oniritziaz, eta hurrengo bilkuran onartuko dira. Idazkaria ez balego, ikasketa buruak betekolitzuzke haren eginkizunak.
3. Akta bakoitzean bilkura noiz eta non egin den, nortzuk etorri diren eta nortzuk adierzai duten etorri ezina, eztabaidatutako gaiak, bozketa modua eta emaitzak eta akordioen edukiak jasoko dira, bai eta kideren batek idazkiak zerrendaratzeko egindako eskaria ere. Horretarako 48 orduko epea izango da.

5. ARTIKULUA: ESKOLA KONTSEILUAREN DEIALDIAK ETA AKORDIOAK

1. Eskola Kontseiluak bilkura arruntak egingo ditu. Lehendakariak egingo ditu deialdiak, eguna, ordua eta gai zerrenda adieraziz. Bilkura arruntetarako deialdiak 5 asteguneko aurretiaz egingo dira.
2. Gai zerrenda Eskola Kontseiluko lehendakariak prestatuko du. Eskola Kontseiluak nahiz bere batzordeetako edozeinek aztertu beharreko dokumentazioa kontseilu-kideen eskutan egon beharko da gutxienez 5 egun lehenago bilkura arrunta bada, eta 2 egun lehenago, apartekoa bada, gaiok eztabaidatuak izango diren bilkura egin baino lehenago aztertuak izan daitezzen. Urteko Planaren eta Memoriaren proposamena hura onartu baino astebete lehenago egongo da Eskola Kontseiluko kideen eskutan.
3. Eskola Kontseilua osatzen duten kideen laurdenak hala eskatuta, bidezkoa izango da Eskola Kontseiluak aparteko bilkura egitea. Eskabideari gai zerrenda erantsi beharko zaio. Lehendakariak 2 laneguneko aurretiaz egin beharko du deialdia, eta ezingo da atzeratu 7 egun baino gehiagoz.
4. Zuzendaritza Batzordeari dagokio Eskola Kontseiluaren

eztabaida eta erabakietarako beharrezko informazioa

zabaltzea. Gai zerrendan agertzen ez diren gaiak aztertzerik izango da horretarako astirik baldin bada, baina ezingo da erabakirik hartu; Eskola Kontseiluaren hurrengo bilkurako gai zerrendan sartuko dira, Kontseilura agertu diren kideen gehiengo soilak egoki iritziz gero.

5. Eskola Kontseiluko erabakiak - Arautegi honetara bildutako suposamenduetan bestelako gehiengoa eskatzen denean izan ezik- gehiengo soilaz hartuko dira jendeaurreko bozketa bidez, edozein kidek isilpeko bozketa eskatu ez balu, behintzat. Botoa baiezkoa, ezezkoa nahiz zuria izan daiteke; kideek abstentziora ere jo dezakete. Botoa pertsonala eta eskuordeezina da. Bozketaren emaitza berdinketa denean, beste bozketa bat egingo da, eta berriz ere berdinketa suertatzen bada, lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du.
6. Eskola Kontseiluko eta bertan eratutako batzordeetako hautazko kideak ez zaizkio mandatu inperatiboari lotuko, ordezkaritzan ari direnean. Sektore bakoitzeko ordezkariak Eskola Kontseiluan egindako jarduketan berri eman behar diote kide anitzeko organoari, bai eta egin nahi dituzten proposamenena ere, organoaren iritzia loturagabea izango delarik. Hala ere, konfidentzialtasuna bete beharko dute persona jakinei dagokienez, eta beraien ohorean, intimitatean eta pribatutasunean eragina izan dezaketenean.

6. ARTIKULUA: ESKOLA KONTSEILUAREN AGINTALDIAREN IRAUPENA

Eskola Kontseiluaren agintaldiaren iraupena, kideen berriztatze partziala, aukeratzeko modua eta prozedura Euskal Autonomia Elkarteak unibertsitateaz kanpoko ikastegi publikoen azaroaren 12ko 258/1996 Dekretuari nahiz haren ordezkoko araubideari lotuko zaizkio.

7. ARTIKULUA: IRAKASLE KLAUSTROA

1. Irakasleek ikastegiko gobernuan parte hartzeko organoa da Klaustroa; berea da plana egiteko, koordinatzeko, erabakitze, eta hala egokituz gero, bertako irakaskuntza alor guztiei buruz informazioa emateko ardura. Klaustroa ikastegian zerbitzua ematen duten irakasle guztiek osatzen dute, eta zuzendaria da burua.

8. ARTIKULUA: KLAUSTRUAREN ESKUDUNTZAK

1. Zuzendaritza taldeari ikastegiko egitasmoak eta urteko programazio orokorra taxutzeko proposamenak egitea.
2. Kurrikulum proiektuak eta irakaskuntza alorrak onartu eta ebaluatzea, ikastegiko hezkuntza egitasmoa eta programazio orokorra kontuan hartuta.
3. Esperimentazioan, pedagogi ikerketan eta ikastegiko irakasleen prestakuntzaren alorretan ekimenak bultzatzea.
4. Ikastegiko Eskola Kontseilurako ordezkariak aukeratzea.
5. Ikasleen orientazioari, tutoretzari, ebaluazioari eta errehabilitazioei dagozkien egitekoak koordinatzea.
6. Hezkuntza administrazioak ikastegia ebaluatzetik ateratako emaitzak nahiz ikastegiaren jardunari buruzko edozein txosten aztertu eta baloratzea.
7. Funtzionamendu arauak onartzea.

9. ARTIKULUA: IRAKASLE KLAUSTROAREN BATZARRAK

1. Irakasle klaustroak bilkura arruntak egingo ditu. Lehendakariak egingo ditu deialdiak, eguna, ordua eta gai zerrenda adieraziz. Bilkura arruntetarako deialdiak, gutxienez, 5 asteguneko aurretiaz egingo dira. Gai zerrendara bildutako gaiak buruzko dokumentazioak, deialdia egiten den une berean egon beharko du ikastetxeko idazkaritzan, klaustroko kideek eskuratzeko moduan.
2. Klaustroaren lehendakariak egingo du gai zerrenda bere ekimenez nahiz irakasle taldeek zein irakasleek eskatuta, Zuzendaritza Taldeari kontsulta egin ondoren. Gai zerrendan agertzen ez diren gaiak aztertzerik izango da horretarako astirik baldin bada, baina ezingo da erabakirik hartu. Irakasle Klaustroaren hurrengo bilkurako gai zerrendan sartuko dira, Klaustroa agertu diren kideen gehiengo soilak egoki iritziz gero.
3. Klaustroa osatzen duten kideen laurdenak hala eskatzen badu, bidezkoa izango da aparteko bilkura egitea. Eskabideari gai zerrenda erantsi beharko zaio. Lehendakariak bi laneguneko aurretiaz egin beharko du deialdia, eta ezingo da atzeratu zazpi egun baino

gehiagoz.

4. Ikasturtearen amaieran, Irakasle Klaustroa bildu, eta ikasketen garapenari buruzko txostena prestatukodu, urteko memoriari eransteko eta hurrengo ikasturteko irakaskuntza jardueren programan sartuko diren egitasmo didaktikoak definitzeko.
5. Irakasle klaustroa urtean hiru (hiruhilabetero) aldiz bilduko da gutxienez. Era berean, zuzendariak nahiz Zuzendaritza Taldeak erabakitakoan nahiz irakaslegoaren herenak eskatutakoan ere bilduko da.
6. Klaustroaren erabakiak -Arautegi honetara bildutako suposamenduetan bestelako gehiengoa eskatzendenean izan ezik- gehiengo soilez hartuko dira, jendeaurreko bozketa bidez, edozein kidek isilpeko bozketa eskatzen ez badu. Botoa baiezkoa, ezezkoa nahiz zuria izan daiteke; kideek abstentziora ere jo dezakete. Bozketaren emaitza berdinketa denean, beste bozketa bat egingo da, eta berriz ere berdinketa suertatzen bada, lehendakariaren kalitate botoak erabakiko du.
7. Akta bakoitzean bilkura noiz eta non egin den, nortzuk etorri diren eta nortzuk adierazi duten etorri ezina, eztabaidatutako gaiak, bozketa modua eta emaitzak zein akordioen edukiak jasoko dira, bai eta kideren batek idazkiak zerrendaratzeko egindako eskaria ere. Horretarako 48 orduko epea izango da.
8. COVID 19 aren eraginez, egoeraren arabera, posible izango da batzarrak online edo semipresentzialak egitea.

10. ARTIKULUA: ZUZENDARITZA TALDEA

Honako hauek osatuko dute Zuzendaritza Taldea:

- Zuzendariak
- Ikasketaburuak
- Idazkaria / koordinatzailea

11. ARTIKULUA: AGINTALDIAREN IRAUPENA ETA KARGU-UZTEA

1. BAGUZ ELKARTEARI dagokio Zuzendaritza Taldea izendatzea.
2. Agintaldia esleipenaren arabera izango da.
3. Zuzendaritza Taldeko kide guztiek agintaldia

amaitutakoan edo zuzendariak kargua uzten duenean

utziko dituzte karguak. Hala ere, Baguz Musika Elkartek Zuzendaritza Taldeko edozein kide kenduko du kargutik, agintaldia amaitu aurretik, bere egitekoak larriki bete ez baditu. Aldez aurretik, zuzendariak arrazoiak adieraziko ditu txosten bidez, interesatuari audientzia emanez, eta Eskola Kontseilua kontuan hartuta.

12. ARTIKULUA: EGITEKOAK

1. Zuzendaritza Taldearen egitekoak, honakoak dira:
 - a. Ikastegiaren zuzendaritza pedagogikoa eta koordinazioari buruzko irizpideak bai eta jarduerari dagokion garrantzi handiko erabakiak ere hartzen zuzendariari laguntzea.
 - b. Kudeaketa egitasmoa, prestakuntza jardueren, eskolaz kanpoko eta osagarrien egitaraua eta urteko kudeaketa egitaraua prestatzea, Eskola Kontseiluak guztiak onar ditzan.
 - c. Aurreko atalean aipatutako egitarauen betearazpena koordinatzea eta gainbegiratzea, eta Eskola Kontseiluari bete direla jakinaraztea, urteko memoria onar dezan.
 - d. Urteko memoriaren zirriborroa jorratzea, Eskola Kontseiluak eztabaidatzeko.
 - e. Eskola Kontseiluari beste ikastegi batzuekin lankidetzara harremanak ezar ditzala proposatzea, bai eta organo horri proposamenak egitea, hark, bidezkoak iruditzen bazaizkio, Ondarroako Udalean, dagokion organoari aurkezteko, kultura eta hezkuntza xedeko hitzarmenak sina ditzaten beste instituzio batzuekin.
 - f. Irakasle taldeak antolatzea, eta ikasturte bakoitzaren hasieran, irakasleak zein jardueretara esleituko diren erabakitzea, gaia arautzen duten arauekin bat etorriz.
2. Aurreko ataleko b) eta d) hizkietako egitekoak betetzeko, Zuzendaritza Taldeak agiri horiek prestatuko ditu.
3. Zuzendaritza Taldea izango da kudeaketaren alor desberdinak koordinatuko dituen organoa. Horretarako, kide bakoitzak bere eskuduntzapeko jarduketaren berri eman, irizpide komunak bilatu eta jarduketa guztiak

barne-lotzeko ahaleginak egingo ditu.

4. Gutxienez, hilean behin batzartuko dira, bilkura arruntean. Aparteko bilkuran, zuzendariak hala erabakitzen duenean nahiz taldeko beste bi kideek hala eskatzen dutenean.
5. Zuzendaritza Taldeko kideetako bat, gutxienez, goizetako eskola garaiko bi ordutan, eta arratsaldeko eskola garaiko beste bi ordutan egoteko moduan antolatuko du ordutegi taldeak.

13. ARTIKULUA: EGINBEHARRAK

Honako eginbeharrok dagozkio Zuzendaritza Taldeari:

1. Urteko planaren egitarauen eta azken memoriaren prestakuntza koordinatzea.
2. Urteko plana martxan jartzearen jarraipena egitea, eta batez ere, irakaskuntza eta kudeaketa jardueren egitarauarena.
3. Pedagogi Koordinazio Batzordearen txostenak eta proposamenak biltzea eta praktikan nola jarri aztertzea.
4. Klaustroaren, mintegien eta Eskola Kontseiluaren batzarretakogai zerrendak prestatzea.
5. Beharrezko informazio bideak sortzea eta zuzendaritza eta koordinazio organo desberdinetarako beharrezko informazioa eskura izatea.
6. Eskola Kontseiluari eta Klaustroari urteko planaren egitarauak betetzeari buruzko informazioa ematea, bai eta betearazteari egin diezaizkioketen aldaketei buruzkoa ere.

14. ARTIKULUA: ZUZENDARIA

1. Zuzendariak du ikastegiko kudeaketa orokorraren eta jardueraren ardura, eta bereziki irakaskuntza jarduerarena; Eskola Kontseiluak agindutako jarraibideen arabera arituko da, eta hori guztia Legeak, Baguz Musika elkarteak eta Arautegi honek Ondarroako Udaleko Gobernu Organoei eman eta erreserbatutako ahalmenen mende.
2. Zuzendaria Baguz Musika elkarteak aukeratuko du.
3. Agintaldia esleipenaren arabera izango da.
4. Zuzendariak agintaldia amaitzen denean utziko du kargua, edo, suerta daitekeen edozein arrazoiengatik, ikastegiko irakaskuntza langile izateari utzi izanagatik. Zuzendaria izendatu duen organu berak (Baguz Musika Elkarteak) ken dezake hura kargutik agintaldia amaitu aurretik bere egitekoak larriki ez betetzeagatik, Eskola Kontseiluak proposatuta, kideen bi hereneko gehiengoz hartutako akordioaren ondorioz.

5. Zuzendariak, dagozkion egitekoak beteko baditu, Udalak, Eskola Kontseiluak, Baguz Musika Elkartek eta Irakasle Klustroak egindako

planen eta hartutako akordioen arabera jardun beharko du, bakoitzaren eskuduntzako gaitan. Era berean, hezkuntza komunitatea (eta bereziki, irakasleak) dinamizatzea dagokio, bai eta haien ekarpenak eta interesak bildu eta bideratzea, eta komunikatzeko eta elkarrekin lanean aritzeko bideak bilatzea ere.

6. Zuzendariak ikasketaburua eta koordinatzailea izendatuko ditu, eta Baguz Musika Elkarteari, Udalari eta Eskola Kontseiluari emango dio bere hautaketaren berri.

15. ARTIKULUA: ZUZENDARIAREN EGITEKOAK

Zuzendariari dagokio:

- a. Ikastegiaren ordezkaritza akademiko ofiziala izatea.
- b. Ikastegiaren jarduera zuzendu eta koordinatzea; ikastegiko ekintza akademikoen eta kide anitzeko organoen batzarren deialdiak egin eta buru izatea.
- c. Ikastegiaren jardunean eragina izan dezaketen arauak, xedapenak, jarduketa egitasmo eta egitarauak eta erabakiak betearaztea.
- d. Udalak eta Baguz Musika Elkartek esleitzen dituzten eta Ikastegiaren Antolakuntza eta Jarduera Arautegi honek emandako beste edozein eskuduntza.
- e. Zentruko agiri ofizialei eta ziurtagiriei oniritzia eta sinadura ematea.

16. ARTIKULUA: ZUZENDARIAREN EGINBEHARRAK

1. Honako eginbeharrak dagozkie zuzendariari:

- a. Zuzendaritza Taldearekin batera, ikastegiaren martxa orohar ezagutu eta jarraitzea, bai eta suerta daitezkeen arazoena ere, bera baitabertan gertatzen den guztiaren azken erantzule.
- b. Zuzendaritza Talde, Klaustroa eta Eskola Kontseiluko deialdiak egin, gai zerrendak erabaki eta bilkuren buru izatea.
- c. Urteko plana betetzeari buruz Zuzendaritza Taldeak prestatutako txostena jasoaraztea.
- d. Burutzen dituen organoen erabakiak betearaztea,

edo bestela, bestek betearaz ditzatela
erabakitzea.

- e. Administrazioarekiko, Baguz Musika Elkartearikiko eta instituzioekiko harreman akademikoak ikastegiaren izenean bideratzea.
- f. Ikasleei, beren familiei eta irakasleei dagozkien diziplina eta elkarbizitza akademikoaren inguruko gaiak Arautegi honetan ezarritakoaren arabera argitu eta ebaztea.
- g. Proiektu Kurrikularra, urteko programazio orokorra eta urteko memoria koordinatzea eta zuzentzea.
- h. Zentruko jarduera osagarriak eta estraeskolarrak koordinatzea eta hauen betearazteaz arduratzea.
- i. Zentruko jardueren, proposamenen etaegoera orokorrari buruzko informazioaren argibidea ematea Eskola Kontseiluari, Baguz Musika Elkarteari eta baita Udalari ere.

17. ARTIKULUA: IKASKETABURUA ETA IDAZKARIA / KOORDINATZAILEA

- 1. Irakasleen artetik proposatuko ditu zuzendariak ikasketaburua eta idazkari/koordinatzailea, eta Baguz Musika Elkarteari eta ikastegiko Eskola Kontseiluari emango dio horren berri.
- 2. Ikasketaburua da Kurrikulum Proiektua eta Irakaskuntza Jardueren egitaraua betearaztea zuzenean koordinatu eta zaintzeko ardura duen organoa. Ikastegiko Zuzendaritza Taldeak onartutako irizpideen arabera, honako egitekoak dagozkio:
 - a. Jarduera akademikoak koordinatzea.
 - b. Ordutegi akademikoa egin eta betearaztea.
 - c. Irakasle taldeak antolatzea, eta ikasturte bakoitzaren hasieran, irakaslegoa jardueretara esleitzeko zein irizpide baliatuko diren erabakitzea, gaia arautzen duten arauekin bat etorritik.
 - d. Ikastegiko arauzko nahiz Antolakuntza eta Jarduera Arautegiko xedapenetan jasotakoek agindutako egitekoak.

18. ARTIKULUA: IKASKETABURUAREN EGINBEHARRAK

- 1. Ikasketaburuak honako eginbeharrok ditu:
 - a. Irakasleek ez etortzeagatik nahiz bajagatik utzitako hutsuneak estaltzeko ezarritako mekanismoak

martxan jartzea, beti ere, lan kontratazioa behar ez denean.

- b. Diziplina eta elkarbizitza auzietan eskuartzea, arautegi honetan ezarritakoari jarraikiz.
 - c. Ebaluazio eta orientazio prozesuak koordinatzea.
- 2. Zuzendaritza Taldearen pedagogi alorraren arduradun denez, ikasketaburuak mendea dituzte Pedagogi Batzordea, irakaskuntza taldeak eta hezkuntza zerbitzuak. Aldizka, eta hala eskatzen diotenean, organo hori guztien jarduketan berri emango dio Zuzendaritza Taldeari. Irakaskuntza taldeen arduradun eta koordinatzaileengandik talde desberdinek egindako lanerako planei, lanaren garapenari eta hartutako erabakiei buruzko informazioa jasoko du.
- 3. Ikastegiaren egoera eta irakaskuntza taldeek egindako zikloak aztertu ostean, ikasketaburuak zuzendaritza taldearen laguntzaz urteko planean barne sartuko diren berrikuntza nahiz prestakuntza egitasmo espezifikoei xede izango dituzten gaiak proposatuko ditu.

19. ARTIKULUA: IDAZKARIA/KOORDINATZAILEA

- 1. Idazkariak honako egitekoak ditu:
 - a. Eskola Kontseiluaren, Zuzendaritza Taldearen eta Klaustroaren bilkuretako gai zerrendetan datozen gaiak prestatzea, organo horietako lehendakariak ezarritakoaren arabera. Aipatutako organoen bilkuretako aktak egitea.
 - b. Aktak, espedienteak eta ikastegiak berezkoa duen dokumentazioa zaintzea, eta organoen esanetara izatea.
 - c. Zuzendariaren oniritziaz, ikastegiaren egintza nahiz ebatzen eta akordio oro egiaztatzea, bai eta ikastegiaren aurrekari, liburu eta agiriak ere.
 - d. Zentruko inbentarioaren kudeaketa bideratu eta eguneratu.
 - e. Zentruko material didaktiko eta informatiko zein ikus-entzunezko tresneriaz arduratu.
 - f. Zuzendaritza Taldearekin batera, urteko programazio orokorrean eta hezkuntza proiektuan parte hartu.
 - g. Zuzendari Pedagogikoak eman diezaioken beste zenbait funtzio.

20. ARTIKULUA. BAGUZ MUSIKA ELKARTEA: Ikastegiaren kudeaketa arduraduna .

Unanue tar Pedro Mari Musika Eskolaren titulartasuna Ondarroako Udalaren esku dago. “Baguz musika elkarteak”, musika eskolaren zein haren zerbitzuan kontratatutako langileriaren kudeaketaz arduratzen da.

1. Baguz Musika Elkartearen eginkizunak:

Baguz musika elkarteak, giza errekurtsoen, materialen, langileriaren eta administraritzaren kudeaketa bere ardurapean izango du.

2. Elkartearen gaitasunak:

- Nagusiki, musika eskolaren irakaskuntza plana eta Proiektu Kurrikularraren plangintzaren lantzeaz eta martxan jartzeaz arduratzen da.
- Zentruko Zuzendaritza Taldea izendatu.
- Udala, zentruaren egoera orokorraz informatzea (ikaslegoaz, matrikulazioaz, aurrekontuez etabar).
- Langileriaren nominak zertzea; gizarte-segurantzari zein foru-ondasunari dagozkien ordainketaz arduratzea.
- Ikastegia modu egokian antolatzeke pertsonalaren beharrianak Udalari aurkeztea eta Toki Administrazioari behar diren ordezkapenak eskatzea.

21. ARTIKULUA: IRAKASLEAK

1. Lanaldia eta irakasleen lan balditzekin zerikusi daukaten gaiak, Euskal Autonomia erkidegoko gizarte ekimenezko ikastetxeen hitzarmen kolektiboaren arabera gobernatuko dira.
2. Irakasleei dagokie:
 - a. Ikastegiaren Kurrikulum Proiektuaren arabera irakaskuntza jardueren programazioa jorratu, garatu eta balioestea.
 - b. Irakasleen tutoretza bere gain hartzea, ikasketak eta aukera akademiko eta profesionalak bideratzeko.
 - c. Esleituak dituen irakaskuntza taldeetan parte hartzea, eskolaren testuinguruari dagokion ekintza koordinatua eta egokia zehaztu eta lortzeko.
 - d. Ikastegiaren Urteko Plana egiten, bai eta ikastegiaren eta irakasleen irakaskuntza praktikaren ebaluaketan ere laguntzea, eta hartan barne sartutako egitasmo berezietan dagokion neurrian lan egitea.
 - e. Eman dizkioten karguak eta egitekoak betetzea.

- f. Ikastegia antolatzen laguntzea eta ongi joan dadin ahalegintzea, ikasketaburuaren eta ikastegiaren Antolakuntza eta Jarduera Araudian zehaztutako beste arduradunen koordinaziopean.
 - g. Klaustroaren eta pedagogiako koordinazio organoen batzarretara joatea, bai eta gobernuako kide anitzeko organoetara ere, horretarako hautatua izan bada.
 - h. Ikastegiaren gobernu organoek ezarritako arauak betetzea.
 - i. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailak, EHMEEk edo eta Musika Eskola berak eskainitako baldintzetan, formakuntza ikastaroetan eraginkorki parte hartzeko aukera izatea.
- Jarduera horietan emandako orduak norberaren ordutegian agerraraziko dira.
- j. Beraien lan-ordutegia puntualtasunez bete eta berarien klaseetako ikasleen asistentzia eta puntualitatea kontrolatu.
 - k. Beraien ikasleen txostenak landu.

22. ARTIKULUA: TUTORE-EGITEKOA

- 1. Ikastegian diharduten bitartean, ikasleek beren instrumentu nagusiko irakaslea izango dute tutore.

23. ARTIKULUA: TUTOREAREN EGITEKOAK

- 1. Tutoreari ondorengo eginbeharrak dagozkio:
 - a. Tutoretza eta orientazio planak banaka garatzea.
 - b. Ikasle bakoitzaren jarraipena egitea, taldean aritzen diren irakasleen informazioa biltzea eta ikasle bakoitzaren espedientea betetzea.
 - c. Behar duten ikasleentzako hezkuntza berrindartzeak eta kurrikulum egokitzapenak prestatzea, eta betearaz daitezen zaintzea.
 - d. Taldean aritzen diren irakasleei hilero dei egitea, taldearekiko jarduketa koordinatzeko, eta derrigorrez, lauhileko amaieran, ikasleen ebaluaketa egin eta taldean gertatzen diren egoerak aztertzea.
 - e. Asistentzi eta puntualtasun hutsegiteak, bai eta diziiplina hutsegiteak ere kontrolatzea, eta guraso nahiz tutoreei abisu ematea.
 - f. Ikasturte hasieran, ikasle eta senitartekoei helburuen, eskola egitarauen eta ebaluaketa irizpideen berri ematea; urtean zehar, hezkuntza prozesuaren eta ebaluaketan berri ematea.

- g. Ikasleen guraso zein tutoreei araudian jasotako moduan harrera egitea.
 - h. Ikasle goaren interesa eta helburuak ezagutzea, eta Musika eskolako inguruaren giroan bertakotzen erraztea. Horretaz gain, jarrera parte hartzaileak bultzatzea.
2. Gurasoekin nahiz tutoreekin elkarriketatzeko orduak ezarriko dira, baina gurasoek alde aurretik eskatu beharko dute hitzordua. Batzar hauek, ikaslearen klaseko azkeneko 15 minutuetan burutuko dira.

24. ARTIKULUA: IRAKASKUNTZA TALDEAK. MINTEGIAK

- 1. Irakasleek koordinaturik egingo dute lana, eta horretarako irakaskuntza taldeak antolatuko dituzte.
- 2. Ikastegiko irakasle guztiak dira ematen dituzten irakasgaien irakaskuntza taldeko kide.
- 3. Ondarroako Musika Eskolako irakaskuntza taldeak honako hauek izango dira:
 - Musika Lengoaia departamentua: Musika Lengoaia eta abesbatza.
 - Teklatu eta fuelle departamentua: piano, akordeoia eta trikitrixa.
 - Soka departamentua: biolina, biolontxelo, kitarra klasikoa.
 - Haizezko departamentua: klarinetea, flauta, saxofoia, txistua, tronpeta, tronboia, bonbardino-tuba eta tronpa.
 - Tendentzia berriko departamentua: baxu elektrikoa, kitarra elektrikoa, bateria – perkusioa.
- 4. Zuzendaritza Taldeak urtero erabakiko ditu irakaskuntza taldeak, kideak eta jarduteko arauak, irakaskuntza jardueren egitaraua prestatu eta onartzean.

25. ARTIKULUA: IRAKASKUNTZA TALDE/MINTEGIEN EGINBEHARRAK

- 1. Irakaskuntza Taldearen eginbeharrak, honako hauek dira:
 - a. Ikasleen egoera akademikoa aztertu, orohar dituzten beharrianak igarri eta erantzunak ematea.
 - b. Ikasturte bakoitzeko helburuak, edukiak eta irizpideak ezartzea.
 - c. Orotariko jarduerak, ebaluaketa saioak eta jarduera osagarrien

burutzapena antolatzea.

- d. Irakaskuntza taldearekin zerikusia duten berrikuntzaegitasmoak nahiz horren antzekoak koordinatzea.
- e. Pedagogiako Koordinazio Batzordearen proposamenak aztertu eta kontuan izatea, bai eta batzorde horri proposamenak aurkeztea ere, dagokion organoak azter ditzan.
- f. Departamentuari egokitutako materialearen inbentarioa eguneratu eta landu, baita ere bere mantenimenduz arduratu.
- g. Proiektu Kurrikularrari, Plan Pedagogikoari zein urteko programazio orokorrari dagozkien proposamenak adierazi Koordinazio Batzordeari.
- h. Metodologia didaktikoa, programazioa eta sekuentziazioa eguneratuta mantendu.
- i. Ikaslegoaren zein irakaslegoaren formaziorako ekintzak proposatu.

26. ARTIKULUA: IRAKASLE TALDEEN JARDUKETAK

- 1. Irakasle taldeak hilabetero elkartuko dira, nahitaez. Eta honakoak izango dituzte derrigorrezko egitekoak:
 - a. Ikasturte hasieran, elkarri informazioa emateko bideak, helburuak, egitarauak eta ebaluaketa irizpideak finkatzeko.
 - b. Ebaluaketa aldi bakoitzean, ikasleen hezkuntza beharrianak antzeman eta erantzuna emateko eta ikasleen eta taldearen egoera akademikoa aztertzeko.
- 2. Irakasle talde bakoitzak koordinatzaile bana izango du, txandaka izango da aukeratua kide guztien artetik ikasturte hasieran, eta zuzendaritzari proposatuko zaio, izendatua izan dadin.

27. ARTIKULUA: IRAKASLE TALDEKO KOORDINATZAILEAREN EGITEKOAK

- 1. Honako egitekoak dagozkio irakasle taldearen koordinatzaileari:
 - a. Taldearen batzarretarako gai zerrenda prestatu, batzarrak burutu, ondorio eta akordioak bildu eta guztiak betearaz daitezen zaintzea.
 - b. Bilkuretako aktak egitea, eta bertan, aztertutako gaiak eta erabakitako akordioak jasotzea. Era berean, Taldeak prestatutako agiri eta materialak eta guztiontzako baliabide didaktikoak biltzeaz arduratuko da, bai eta taldekideek behar dituztenetarako prest izateaz ere.

28. ARTIKULUA: PEDAGOGIAKO KOORDINAZIO BATZORDEA (PKB)

- 1. Pedagogiako Koordinazio Batzordea irakasle talde desberdinak

koordinatzeko organoa da. Ikasketaburuak burutuko du etairakasle taldeetako arduradunak izango ditu kide.

29. ARTIKULUA: PKB REN EGITEKOAK

1. Honako egitekook izango ditu PKBk:
 - a. Ikastegiaren Kurrikulum Proiektua eta irakaskuntza jardueren programa taxutu, abiarazi eta ebaluatzea, Klaustroaren proposamenarekin bat eginez. Klaustroari aurkeztuko zaio onartzeko.
 - b. Maila eta alor arteko irizpide komunak ezartzea eta maila bati baino gehiagori eragiten dieten jarduerak koordinatzea.
- c. Gobernu organoek esleitutako beste obra guztiak.
2. Egoki iritzitakoan, Pedagogiako Koordinazio Batzordeak proposamenak aurkeztu ahal izango dizkie gobernu organoei, eztabaidatuak izan daitezten eta haien gaineko erabakiak hartzeko.
3. Pedagogiako Koordinazio Batzordea hamabost egunean behin bilduko da, edo ikasketaburuak deitzen duen bakoitzean edo kideen herenak eskatutakoan.

30. ARTIKULUA: IKASTEGIETAKO OSASUN ETA SEGURTASUNARI BURUZKO ARAUDIA

1. Langileek ekainaren 25eko 18/1998ko Legearen 23. Artikuluan (1998-07-14ko "E.H.A.A") eta abenduaren 26ko 28/2005 Legean (2005-12-27ko "B.O.E.") nahiz horien ordezkoko arauak ikastegietan ez erretzeari buruz diotena bete beharko dute.
2. Ikastetxean behar bezala hornitutako botikina izango da.

X ATALA: IKASTEGIA KUDEATZEKO TRESNAK

31. ARTIKULUA: HEZKUNTZA ANTOLAKETA TRESNAK

1. Ondarroako Musika Eskola antolatu eta koordinatzeko tresnak dira:

- Ikastegiaren Hezkuntza Proiektua
- Ikastegiaren Kurrikulum Proiektua
- Antolakuntza eta Jarduera Arautegia
- Kudeaketa Proiektua
- Urteko Plana, eta horren barruan:

- a. Irakaskuntza jardueren egitaraua
- b. Prestakuntza jardueren programa ez ezik, jarduera osagarri eta eskolaz kanpokoena ere.

- Urteko kudeaketa programa

- Urteko memoria.

2. Antolakuntza eta Jarduera Araudi hau onartutakoan, Eskola Kontseiluak hezkuntza egitasmoa Euskal Eskola Publikoaren Legearen argitan (1/93 Legearen 46. artikulua) berrikusteko batzordea izendatuko du.

3. Era berean, Irakasle Klaustroak Ikastegiko Kurrikulum Proiektua berrikusteko batzordea izendatuko du (1/93 Legearen 47. artikulua).

32. ARTIKULUA: IRAKASKUNTZA EKINTZARAKO TRESNAK

1. Programazio didaktikoak

1.1 Irakasle bakoitzak autonomia osoa du ikasleekin landuko duen eskola jardueraren egitaraua prestatzeko, bai eta erantzunkizuna ere, ikastegiaren kurrikulum egitasmoaren barruan. Autonomia izanik ere, komeni da beste programazioekin koordinatzea. Programazioek kontuan izango dituzte hala ikasmaila nola arloa.

1.2 Irakasle taldeek ikastegiaren Kurrikulum Egitasmoaren arabera hartutako akordioetatik abiatuta, programazioak burutzeko irizpideak eta programazioek izan beharreko formatua zehaztuko dituzte.

1.3 Urteko orotariko programazioa eta epealdi mugatuetakoko programazioak prestatuko dira, guztiak irakasle taldeek zehaztuak. Programazioetan, urteko planean jasotako berrikuntza eta heziketa egitasmoen garapenean egokitu zaizkien alorrak sartuko dira.

1.4 Programazioak prestatu ostean, Irakasle Taldeak, Zuzendaritza Taldeak eta Irakasleen Klaustroak aztertuko dituzte, eta Ikastegiaren Kurrikulum Proiektuaren barruan ez badira egokiro barne lotzen, iradokizunak egin ahal izango dituzte; Eskola Kontseiluak programaziook berrikus ditzake Hezkuntza Proiektuarekin barne lotzen ote diren aztertzeko.

1.5 Urteko programazioa ikusi ondoren, ikasturte hasieran, tutoreek ikasleei eta familiei lortu nahi diren helburuak zein diren eta ebaluaketa irizpideak zertan diren jakinaraziko diete.

2. Irakaskuntza ekintzaren jarraipena eta koordinazioa

Irakasle Taldeek programazio didaktikoak zenbateraino betetzen diren aztertuko dute, eta irakaskuntza ekintzarako koordinazio bide izango dira. Horretarako irakaskuntza koordinatzaileak hurrengo puntuotan agertzen diren agiriak bilduko ditu:

- a. Taldearen irizpide nagusiak
- b. Kide bakoitzeko urteko programazioak
- c. Akordio eta konpromisoen aktak.
- d. Programazioak praktikan jartzearen berri izateko eta baloratzeko

garrantzizkotzat jotako lan planeko datuak.

- e. Taldeek prestatu eta proposatutako kurrikulum gaiak.
- f. Taldeak hala irakasle nola ikasleentzat erabakitakoprobak, inkestak etabar.

33. ARTIKULUA: DOKUMENTAZIO AKADEMIKOA

1. Ikasle bakoitzak espediente pertsonala izango du, oinarritzko eta derrigorrezko agiriak artxibaturik dauzkala bermatuko diona. Espedientean honako agiriok gordeko dira:

- Ikaslearen fitxa pertsonala.
- Ikaslearen espediente akademikoa.
- Jarraipen boletinen artxiboa.
- Ebaluaketaren azken txostena.
- Kurrikulum egokitzapenak eta salbuespenak, horrelakorik baldin bada.
- Ikaslearen eskola-bizitzan eragina duten txosten garrantzitsuak.

2. Ikaslearen tutoreari dagozkio ikaslearen espediente pertsonala betetzea eta espedientean sartu beharreko dokumentazioa biltzea.

3. Ikastegiaren idazkariari dagokio, agiriak zaindu eta artxibatzea. Bildutako informazioak pertsonen intimitaterako duten eskubideak babestuko ditu, eta horrenbestez, ezingo da hezkuntzazkoa ez den beste helburu baterakoerabili.

4. Espediente pertsonalaz gain, tutoreak irakasleengandik, ikaslearen berarengandik nahiz senitateengandik jasotako informazioetatik eskuratutako datu interesgarriak (baita eskolara ez etortzeak nahiz hutsegiteak ere) jasoko ditu, baina berak soilik baliatzeko. Datu horiekin guztiekin egingo du taldeko ikasle bakoitzaren jarraipena.

5. Maila bakoitza amaitutakoan, ebaluaketako emaitzak dagozkion aktetan jasoko dira, eta norberaren tutoreak beteko ditu.

X ATALA: ESKOLA BIZITZAREN JARDUERARI BURUZKO ARAUAK

34. ARTIKULUA: IRAKASLEEI DAGOZKIENAK

1. Ikastegiaren Zuzendaritzak, inplikaturiko irakasle taldeetako koordinatzaileekin kontsulta egin ondoren, talde bakoitzari, eman behar dituzten irakasgai berdintsuei dagozkien talde zehatzak esleituiko dizkio. Aipatu erabakiak hartzeko, ikastegiko Zuzendaritza ahalik eta pedagogi barne loturarik handiena bilatuz eta ikasleek kalitatezko irakaskuntza jasotzeko duten eskubidea aintzakotzat hartuz arituko da; hori horrela, antzeko irakasgaiak eman behar dituzten irakasle taldeko kideei, ahal dela, talde hartzaileak dituen irakasgaietatik kurrikulumaren aldetik hurbilen daudenak esleituiko zaizkie, eta horietatik, ahal den neurrian, espezializazio maila handia behar ez duten ikasmailei dagozkien taldeak.

2. Ikasketaburuak taldekide bakoitzak eman beharreko orduak arautegi honetan zehaztutakoari egokitzen zaizkiola ziurtatuko du, bai eta ikasle guztiak kontutan hartu direla.

3. Aurreko jarduketak egin ostean, ikasketaburuak Klaustroak ezarritako irizpide pedagogikoen arabera prestatuko ditu ordutegiak, bai eta Irakasle Taldeen irakasgaiak eta ikasmailak banatuko ere.

4. Ordutegiak prestatzerakoan, bereziki hartuko da kontuan, ahal den neurrian eta lehen aipatutako irizpideekin kontraesanik sortu gabe, txanda desberdinetan (goizez, arratsaldean) eskolak eman behar dituzten irakasleen egoera, irakasle horiei enbarazurik txikiena eragin diezaien. Ordutegiak ezingo dira irakasleen lehentasunen arabera aldatu.

5. Gai eta talde banaketa:

a. Irakasleak titularra den espezialitatean emango ditu klaseak.

b. Ikasgai batetako matrikulazio urria irakasle bat kontratatzeko bestekoa ez balitz -Baguz Musika Elkarteko arautegia kontsultatuz-, irakasleek ordutegiak beren tituluak kontuan harturik irakats ditzaketen gaiekin osatuko lituzkete.

c. Hala ere, derrigorrezko eskola ordu-kopurua lortzeko irakasleari orduak esleitu beharko balitzaizkio, behar besteko irakaskuntza gaitasuna duen gaietarako orduak esleituko litzaizkioke. Behar besteko irakaskuntza gaitasuna Musika espezialitate jakin batean aurretik metatutako irakaskuntza eskarmentuari esaten zaio.

d. Irakasleak espezialitate gaitasuna egiaztatu baleza ere, ez du sekula espezialitateko titularren aurretik espezialitate horretako ordurik hartuko, titularrek ordu horiek behar baldin badituzte.

e. Edonola ere, azken erabakia Zuzendaritza Taldeak, Baguz Musika Elkartearen oneritiaz hartuko du, ikasketaburuak ikastegiko pedagogi eta antolakuntza beharren arabera txostena egin ondoren.

35. ARTIKULUA: ESKOLA ORDUAK JENDAURRERATZEA

1. Ikastegiko ordutegia Udalak onartuko du, Zuzendaritzak txostena egin ondoren; bitartean, irakasleek, ikasketaburuak erabaki, eta Zuzendaritzak behin-behingo onartutako ordutegia bete beharko dute. Edozein galdapen izanez gero, Udalak ebatziko du.

2. Uneoro, irakasleen gelako iragarki-taulan, ikasketa buruzagitzarenean eta ikastegiko estamentu guztiek sartzea duten leku batean, ikastegiaren egoera zertan den aditzera ematen duen informazioa jarriko da, eta batez ere, irakasleen ordutegiak eta lan tokiak zein diren, hala eskola orduei dagokienez nola gurasoen harrera orduei dagokionez.

3. Informazio hau guzti hau edozein unetan eskura dezake hezkuntza komunitetako edozein kidek. Era berean, zuzendaritzako kargu bakoitza ikastetxean

zein ordutan dagoen ere agertuko da.

4. A.J.A.n, zehaztu ez direnetarako, Musika ikastegietarako ikasturte hasierako zirkularretara joko da.

36. ARTIKULUA: IKASLEEI DAGOZKIEN ARAUAK

Ondarroako Musika Eskolako ikasleek, apirilaren 19ko Euskal Autonomia Erkidegoko Irakaskuntza Zentro ez unibertsitarioak dituzten eskubide eta betebeharrei buruzko 160/1994 Dekretuan, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak 1994ko ekainaren 9an Euskal Herriko Aldizkari Ofizialean (lehen eranskinean) eta Arautegi honetan ezarritako eskubide eta betebeharrak dituzte. 201/2008 Dekretua, 2008ko abenduaren 16ko "E.H.A.A."n argitaratua.

37. ARTIKULUA: ORDUTEGIAK: DIZIPLINA TEORIKOAK

16 urtetik beherako ikasleentzat orotariko erregimeneko eskoletara etortzeak **LOGSEko 5. Artikuluaren arabera duen erabateko** derrigortasuna kontuan izanik, eta lege beraren 1. artikulua irakaskuntza hauek orotariko erregimenekoarekin batera egin ahal izateko aukera guztiak erraztera behartzen duela administrazioa, ikasle hauei emandako eskola guztiak arratsaldeko orduetan izango dira, inolako salbuespenik gabe 1. eta 2. Ikasmailaiei dagokionez. Horrenbestez, diziiplina horietako irakasleek ikasle mota horren eskea bete arteko ordutegia eskaini beharko dute arratsaldez, dauzkaten tokien arabera.

38. ARTIKULUA: DIZIPLINA INSTRUMENTALAK

1. 2.1 ikasmailako irakaskuntzarako, ikastegiak eskainitako instrumentuetako ikasleak onartuko dira; Onarpen prozedura hau izango da:

a. 2.0tik datozen ikasleek 3 instrumentu aukeratuko dituzte. Lehen aukeran, zuzenean erabakitako Instrumentu minoritarioetan sartuko lirateke, beti ere plazarik egonez gero; plazarik ezean, zozketa bidez sartuko lirateke. Gainontzeko instrumentuetan, eskeintzen diren plaza kopuruen arabera, zozketa bidez sartuko lirateke. 2. eta 3. aukeretan prozedura berdinaz sartuko lirateke.

b. Aurretiaz zentruan matrikulata egonik, instrumentu aldaketa egin nahi duten ikasleak.

c. Zentruz kanpoko ikasle berriak.

d. Bigarren instrumentu bat hartu nahi duten zentru barruko ikasleak.

39. ARTIKULUA: IKASLEEN MATRIKULA-INDARGABETZEAK

1. Azaroaren 15 arte, hau barne, eska dezakete ikasleek matrikula indargabetzea. Behin data hortatik aurrerantzean, ikasturte osoko kuota ordaintzen jarraitu beharko dute, soilik honako salbuespenak onartuko direlarik:

- Medikuaren ziurtagiria ekarriz.
- Heriotza.

- Bizileku aldaketa -150 km tara-.

2. Matrikula indargabetu nahi duen ikasleak, Musika Eskolako idazkaritzan adierazi beharko du, dagokion agiria aurkeztuz. Musika Eskolako Zuzendaritzak Baguz Musika Elkarteari jakinaraziko dio eta honek Udalari.

40. ARTIKULUA: IKASLEEN ESKUBIDEAK

1. Ikasleen eskubideak hauek izango dira:

- Beraien osotasun fisiko zein morala errespetatzea eta baita duintasun pertsonala ere.
- Beraien etekin eskolarra objetibitatezko irizpideekin bat balioztatua izatea.
- Orientabide orokorra.
- Zigorrek ezarri aurretik beraiekin mintzatu.
- Ikasleen ordezkariak aukeratzea nahiz hautatua izatea.

41. ARTIKULUA: IKASLEEN BETEHEARRAK

Ikasleen betekizunak hauexek izango dira:

- Matrikulatu den ikasgaietako klaseetara asistitzea.
- Jasotako irakaskuntzen probetxua azaltzea.
- Bere datu pertsonalen aldaketak ikastegiari jakinaraztea.
- Ezarritako epean egitea kuoten ordainketa.
- Heziketa-erkidegoaren kideen eskubideen eta libertateen jarduna errespetatzea.
- Zentruak programatutako ekintza zein ihardueretara asistitzea eta hoietan parte hartzea.
- Jarrera baikorra zein portaera zuzen eta egokia azaltzea.
- Bakarkako ikasketa-lanei behar duten gutxienezko astia dedikatzea.

42. ARTIKULUA: ASISTENTZIA

1. Ikaslearen eskubidea eta betebeharra dira matrikulaturik dagoen irakasgaietako klaseetara etortzea.

2. Ikasleen legezko arduradunek zurituko dituzte etortze hutsegiteak, dagokion irakasle nahiz tutorearen aurrean. Adinez nagusiak diren ikasleek edozein lan harremanetan eskatu ohi diren frogagiriak aurkeztu beharko dituzte hutsegiteak zuritzeko. Hala ere, familiari ere jakinarazi beharko zaio hutsegitea, harekin bizi eta ekonomikoki haren mendeko harremana duten bitartean. Covid-19aren eraginez, hutsegitea gertatu eta egun berean zuritu beharko dute ikasleek hura.

3. Hutsegite arinak hauexek dira:

- Noizean behingo justifikatu gabeko bertaratze hutsegitea edo eta justifikatu gabeko puntualitate eza, hutsegite arintzat joko dira.
- Aipatutako kasuetan honako prozedura jarraituko da: dagokion irakasleak edo tutoreak hutsegiteari buruzko azalpena eskatuko dio ikasleari, eta horrez gain, adin txikikoa izanez gero, gurasoei jakinaraziko die.

4. Klaseetara sarritan egindako sarritan justifikatu gabeko hutsegitea, ordea -3 hilabeteko 6 hutsegite- astuntzat joko da. Kasu honetan, interesatua nagusia izanik edo eta bere arduradun legalak, adin txikikoa izanik, ahoz zein idatziz ohartaraziko ditu ikastegiak hutsegitearen izaera larria espreski adieraziz, honako neurriak har daitezkelarik:

- Eskola Kontseiluak adosturiko kanporaldia.
- Ofizialtasunaren galera.

43. ARTIKULUA: INFORMAZIOA ETA ADIERAZPEN BIDEAK

1. Ikastegian baliatutako edozein komunikazio zein adierazpen bideak hertsiki zaindu behar dituzte gainontzeko banakoen nahiz taldeen eskubideak. Informazio kartel guztiek argi eta garbi azalduko dute nork eginak diren. Baldintza horiek betetzen ez dituzten kartelak kendu egingo dira.

2. Informatzeko kartel guztiak Zuzendaritzan aurkeztuko dira, jendeaurrean jarri aurretik.

3. Horretarako beren-beregi prestatutako tokietan soilik jarriko dira kartelak.

44. ARTIKULUA: GELAK ETA EKIPAMENDUAK ERABILTZEARI BURUZKO ARAUAK

1- Ikastetxeko gelak eta ekipamenduak irakaskuntza jarduerak burutzea dute erabilera Nagusia.

2-Diziplina bakoitzari gela bat emango zaio; zenbait gela, ordea, guztiontzako izango da, eta jarduera bereziak egindo dira bertan. Erabilgarritasunaren arabera erabakiko dira, eta ezingo dute jarduera ohiko moduan garatzea oztopatu.

3-Diziplina ezberdinetarako gela-banaketa zuzendaritza taldeak egingo du; espazioa era egokienean aprobetxatzeko eta diziplina desberdinei ahalik eta enbarazurik txikiena eragiteko moduan egingo da banaketa.

Ikastetxeko gelak publikoak izaki eta horrenbestez, Musika erakundeek nahiz elkarteek sustatutako jarduerak burutzeko erabili ahal izango dira, beti ere, ez badiztuzte ikastegiak berak antolatutako jardueren garapena eragozten. Eskola Kontseiluak proposatuko ditu lokalak beste instituzioei lagatzeko lehentasunak eta irizpide orokorrak; lagatzea Ondarroako Udaleko Kultura Arloak soilik erabaki dezake.

45. EBALUAZIOA

1-Ikasleen ikasketa ebaluazioa norbanakotua eta etengabea izango da, eta taldeko irakasleekin egingo da, tutoreak koordinaturik. Irakasle bakoitzak berak ematen duen irakasgaiaren ebaluazioaren ardura izango du.

2-Aldi bakoitza amaitutakoan ikasleen ikasketari eta irakaskuntza praktikari buruzko ebaluazioa egingo da. Irakaskuntza jardueraren egitarauan zehaztuko dira aldiak eta ebaluazio datak, bai eta Kurrikulum Proiektuko irizpideen arabera erabiliko diren tresnak ere.

3-Ikasketaburuak deituko ditu irakasleak ebaluazio bilkuretara. Irakasleek etortzeko obligazioa dute.

4-Tutoreak txosten bat egingo dio ikasle bakoitzari, eta bertan honakoak agertuko dira:

- Irakasgaien kalifikazioak.
- Jarrera eta eskola etekinari buruzko oharpenak.
- Aholkularitza eta heziketa indartzeko proposamenak, beharrezkoak badira.

5- Tutoreak ebaluazio bilkuran erakutsiko du txostena, baieztatu ala aldatzeko. Era berean, akordio eta gertakarien akta egingo du. Onartutako txostenak ikasketa buruari entregatuko zaizkio, bilkuraren aktarekin batera.

6- Irakasgaiaren batean kalifikazio ezkorra izan duten ikasleek, nahi badute, oinarritzko edukietan nahikotasuna lortzeko proba bat egin dezakete. Dagokion taldeak prestatuko du proba eta ikuskatuko ditu emaitzak. Azken kalifikazioa erabakitzeko, arloak berezko

dituen gaitasunak garatzeko maila eta oinarrizko edukiak ikasita dauden hartuko du

kontuan, bai eta ikasturtean zehar egindako lana ere. Gaingitu gabeko ikasgaiak dituzten ikasleek aparteko deialdian egin ahal izango dituzte azterketak.

7- Tutoreak ebaluazioaren jarraipen buletina emango die ikasle eta gurasoei.

8- Gaingitu gabeko irakasgaiak dituen ikaslea goragoko ikasmailara igarotzea, horretarako dauden dekretu eta araudi legalek ezartzen dutenaren menpe egongo da.

9- Ebaluazio bilkura egin eta berehala, tutore taldeak eta irakasle taldeek amaitutako aldia eta ikasleek izandako kalifikazioak aztertuko dituzte. Tutoreak (guztiak nahiz ikasmaila berekoak) taldearen egoera aztertuko dute, bereziki, ebaluazio ezkorra izan duten ikasleen kopurua handia denean, neurri egokiak proposatzeko.

10- Ikasketaburuak emango dio Eskola Kontseiluari ebaluazioaren emaitzen, igarritako arazoen eta hobetzeko proposamenen berri.

46. ARTIKULUA: IRAKASLE ALDAKETAREN PROZEDURA

1. Ikasleak irakaslea aldatzea eska dezake, ondorengo zirkunstantziok suertatuz gero, eta prozedura honi jarraikiz:

a. Ekainaren lehenengo hamabostaldian eska dezake ikasleak nahiz bere legezko tutoreak, idatziz, eta hurrengo ikasturtean aplikatutako da. Zuzendaritza Taldeari zuzendatuko eskabidea aurkeztuko du, eta bertan irakasle aldaketa eskatzeko arrazoiak agertuko dira.

b. Eskabidea aldaketa eskatu duen ikaslearen irakasleari helaraziko zaio. Irakasleak ikasketaburuari zuzendutako txostena egingo du. Txostenean modurik zabalenean ikaslearen ebaluazioaren hala alderdi pedagogikoak nola zirkunstantzialak luze eta zabal zehaztuko ditu.

c. Zuzendaritza Taldeak, eskabidea eta txostena aztertu ondoren, bidezko erabakia hartuko du eta, ondoren ikasleari eta irakasleari berari jakinaraziko die.

47. ARTIKULUA: IKASLEEN JARDUERA BEREZIEI BURUZKO ARAUAK

1. Dagokion urteko egitarauan onartutako jarduera osagarriak derrigorrezkoak izango dira, kurrikulum garapenaren osagarri baitira. Jarduera horietan parte hartzerik aske egongo dira gaixo daudenek, mediku agindua dutenek edo kontzientzi arrazoiak dituztenak. Gurasoak, nahiz ikasleak berak, adinez nagusia bada, salbuespen eskabideak aurkeztuko dizkio tutoreari, beti ere arrazoiak azalduz.

2. Jarduera horietakoren bat burutzeak ikastegiak ordaindu ezin duen gastua sortzen badu, helburu berezi horretarako dirua eskatu ahal izango die ikasleei. Eskola Kontseiluak erabakiko du urte hasieran jarduera horretarako ikasleari eska dakioken gehieneko diru kopurua, bai eta zailtasun ekonomikoak izan edo jarduerak ordaindu nahi ez dituztenei laguntza emateko sistema, guraso elkartearen laguntzaz.

3. Eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzea borondatezkoa izango da. Ikasle guztiek izango dute horretarako aukera. Inolaz ere ez da, eskolaz kanpoko jardueretan parte hartzeko zuzeneko nahiz zeharreko diskriminazio mekanismorik ezarriko.

4. Kuotaren bat ezarriz gero, burutu beharreko jardueren kostuen ordainketa bakar bat egokituko da, eta beti ere, ordaintzeko zailtasunak dituztenentzat laguntza edo salbuespen sistemak ezarriko dira.

48. ARTIKULUA: IKASTEGIKO INSTRUMENTUEN MAILEGU ZERBITZUA

Aurten, COVID-19aren eraginez , maileguaren murrizketari ekin diogu : Mailegutzan uzten den instrumentua ikasle askoren eskutatik pasa ez dadin , zerbitzua bertan behera geratu da . Ikasle bakar batek darabilen instrumentuaren mailegutzak ordea , indarrean darrai .

Trikitixa , akordeoi eta pianoaren kasuan , ikastegira ikastera etor daitezzen eskatu diegu erabiltzaileei , beti ere eskolako COVID 19 aren protokoloa osotasunean bete ditzaten ohartaraziz : Ikastordua aurretiaz adostu , soilik ikasketarako izendatutako gelan , desinfekzio prozedura jarraituz eta gelen erabilpenen arteko 15 minutuko deborartea errespetatuz. Horrezgain , salketa zein alokairuari buruzko orientabidea ere eman dugu.

49. ARTIKULUA: EKINTZEN ANTOLAKETA

Ekintzen antolaketa jarraibidea argia izan dadin , ekintza bakoitzarekiko jarduteko protokolo bat lantzen ari gara zuzendaritzatik. Protokolo hortan , ekintzon burutzean ager daitezkeen zalantza , inzidentzia eta kasuistika desberdinak ekidin nahi ditugu , zentzuzko prozedura bakar bat argiro zehaztuko duena

50. ARTIKULUA: IKT TRESNEEI DAGOKIENA

1. Tresnok zuzendaritzaren ardurapean geratzen dira

2. Tresnon zaintza :

Idazkaritzan gordeko dira , erabiltzaile guztiek haien kokapen zehatzaren jakitun izango direlarik .

3. Tresnon mailegua :

Eskari bat bete beharko da ikastegitik aterako badira . Eskariaren sinatzailea baliabideon integritate fisikoaren erantzule zuzena izango da .

LEHENENGO XEDAPEN GEHIGARRIA

Arautegi honi egin beharrezko aldarazpenak Eskola Kontseiluak aurkeztuko dizkio Hezkuntza Zinegotziari. Proposamenak Eskola Kontseiluaren bi herenak gutxienez berronetsiko ditu.

OINARRI JUDIZIALA

A.J.A. taxutzeko kontuan hartu diren legezko arau garrantzitsuenak nahiz haren ordezkoko liratekeenak honako hauek dira (LOMCE aurtan + LOMLOE datorren ikasturtean):

- 289/1992, (1992ko urriaren 27an “E.H.A.A.”), Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailbururena, Euskal Autonomi Elkartearen “Musika-Eskola” direlako arautu gabeko beriazko Musika-irakaskuntzarako ikastetxeak sortu eta jardunean jartzeko balio izango duten oinarrizko arauak ezartzen dituen.

- Toki Erregimeneko Oinarrien 7/1985 Legea (1985ko apirilaren 3an “Estatuto Aldizkari Ofizialean”)
- Toki Erregimeneko Gaietan indarrean diren Legezko Xedapenen Testu Bateratuaren 781/1986 Legegintzazko Errege Dekretua (1986ko apirilaren 22 eta 23an “Estatuto Aldizkari Ofizialean”).
- Euskal Eskola Publikoaren otsailaren 19ko 1/1993 Legea (1993ko otsailaren 25ean “E.H.A.A.”).
- 200 Dekretua (1993ko abuztuaren 13an “E.H.A.A.”).
- 201 Dekretua (1993ko irailaren 1ean “E.H.A.A.”), EAEko ikastegi publiko ez unibertsitarioen Ordezkaritza Goreneko Organoetan guraso eta ikasleen gutxienerako parte-hartzeak zehazten dituen.
- Apirilaren 19ko 160/94 Dekretua (1994ko ekainaren 9an “E.H.A.A.”).
- Ikastegien parte-hartze, ebaluazio eta gobernuaren 9/1995 Lege Organikoa.
- Azaroaren 12ko 258/1996 Dekretua (1996ko azaroaren 15ean “E.H.A.A.”) EAEko ikastegi publiko ez unibertsitarioen Ordezkaritzako Organo Gorena hautatu eta berritzeko prozedura arautzen duena.
- Maiatzaren 13ko 116/1997 Dekretua (1997ko maiatzaren 19an “E.H.A.A.”) ikastegi publikoetako Pertsona Bakarreko Gobernu Organoen aukeraketa prozedura arautzen duena.
- Apirilaren 19ko 91/2005 Dekretua, 116/1997 Dekretua aldarazi duena.
- 2005eko apirilaren 20ko Agindua, Euskal Autonomia Erkidegoko ikastegi publiko ez unibertsitarioetako Pertsona Bakarreko Gobernu Organoak aukeratzeko hauteskunde-prozedura zabaldua izan dela adierazten duena.

- Azaroaren 26ko 30/1992 Legea, Administrazio Publikoen Erregimen Juridikoari eta Administrazio Prozedura Erkideari buruzkoa.
- Urtarrilaren 13ko 4/1999 Legea, 30/1992ko Legea aldarazi egiten duena.
- Abenduaren 2ko "Elkarbizitza arauak" 2001/2008 Dekretua,.

2021eko uztailaren 22 ko udal plenoaren onarpenaren esperoan .

Ondarroan, 2021eko uztailaren 16an.

Zuzendaria